

ERROMAKO AITA FRANTZISKOK SANTU LAIKOAK NAHI DITU

Doinua: "Ikusten duzu"

1

Gu gara antxinakoak
kristinau katolikoak
itxuraz benetakoak.
Entzun zer dinon Aita Santu dan
Frantzisko Erromakoak:
"Betoz bai santu laikoak,
Jesusen antz-antzekoak;
andra ta gizonezkoak.

2

Ez da behar sotanarik
gitxiago mantilarik,
izan al da hori barik...
Gure etxean edo auzoan
ez al da santu-santarik?
Ez da txiste ez bromarik,
nik ez daukat zalantzarik:
ez al dogu izan amarik?

3

Pertsona zerbitzaria,
behartsuen pozkaria;
hori bai dala saria!
Laikoak izan ziran munduan
Jesus ta ama Maria;
Laiko santu ugaria
Frantziskoren guraria:
posible dan miraria!

4

Gogo beroz jainkozale
ta hurkoaren maitale
etxe, eleiz ta kale.
Erreinuaren alde dihardu
munduan jo ta dale;
umore izan, nahiz aje,
ez deutsu egingo kale,
hau santua da ta bale!

5

Sinismenaren argira
santuak testigu dira,
ez dagoz gora begira.
Espirituak bialtzen ditu
Aita Jaunaren mahastira
gizartearen erdira,
Jesukristoren distira;
badira batzuk sikira!

6

Irabazteko nahimena
ta sufritzeko kemena,
hau da biderik onena.
Sarri gogora ekarri fedez
Jesukristoren izena.
Oraindik ez da azkena,
badozu itxaropena,
zeurea da garaipena.

7

Zu zara argi munduan
ta gatza bizimoduan,
lagun behar dan lekuan.
Kristau laikoa, ekin adorez
zeure ekintza santuan
eta euki seguruan
zure izena zeruan
dago santu-liburuan.

8

Kristinau laiko normalak,
Jainkoarekin leialak,
hurkoarekin formalak.
Etxe ta kale irribarrez ta
hartuemonak zabalak,
nahiz sarri izan makalak
jarrerak samur apalak;
horra santu mundialak!

9

Kristinau santu laikoak
geure etxe, auzokoak
geure lagunartekoak.
Jainkoa lagun, euren artean
geu sartzeko modukoak:
ez pekatu bakoak,
bai ahalegindutakoak,
gainerakoa Jainkoak.

10

Barriketak barriketa,
badakigu errezeta,
hobe balego beteta...
Egi bihurtu daigun Frantziskok
egin dauan ameseta:
argitu zure kopeta
alkar lepotik kolpeta:
Laikoa, hori dok eta! *Martzel*

